2026-04-30

**2026ko APIRILAren 30eko EZOHIKO BATZARRA**
**JUNTA EXTRAORDINARIA del 30 de ABRIL de 2026**

**Presidentea / Presidente**
Don Iker Txertudi Gaztelu Jauna (EAJ-PNV).

**Batzarkideak / Asistentes**
Doña Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia Andrea (EAJ-PNV).
Doña Paule Sánchez Arieta-Araunabeña Andrea (EAJ-PNV).
Don Iker Urkiza Quilez Jauna (EH Bildu-Durango).
Doña Ane Abanzabalegi Areitio Andrea (EH Bildu Durango).
Doña Jesica Ruiz Pérez Andrea (DES-SVD).
Don Jorge Varela Dordio Jauna (HE-ID).

**Presidente berak gonbidatuak / Invitados/as a instancias del Presidente**
Don Asier Bikandi Elorriaga Jauna (Durangoko Udal-Erakunde Autonomoen Gerentea).

**Behin-behineko idazkaria / Secretaria accidental**
Doña Mireia Mendizabal Urreta Andrea (instalazio teknikaria/Técnica de instalaciones).

| | |
|---|---|
| **Tokia:** Udaletxeko 2. solairuko batzar gela. | **Lugar:** Sala de reuniones, 2 planta del Ayto. |
| **Izaera:** Ezohikoa. | **Naturaleza:** Extraordinaria. |
| **Hasiera ordua:** 9:00 | **Hora de inicio:** 09:00 |
| **Amaiera ordua:** 09:15 | **Hora de finalización:** 09:15 |

Batzordeko Presidenteak lehen deialdian batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu dira:

Abierta la sesión por el Presidente de la Comisión en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del día y que son los siguientes:

**01.«San Fausto» frontoian dagoen Tabernari dagokion Kontratazio-espedientearen hasieraren onarpena.**

Txertudi jaunak galdetu du ea gairen bat duten aztertzeko bozketara igaro aurretik.

*Aspaldidik ari gara zerbitzu honi buruzko informazioa eskatzen. Proposamenak aurkezteko eskubidea izanik, ez zaigu horretarako aukerarik eman. Duela hamabost egun Batzarra egin zen, eta horri buruz ere ez zen ezer aipatu. Proposamena ekarri eta aurkeztu duzue. Ezin da esan ez dugunik proposamenik aurkezten, baizik eta aurkezteko aukerarik ere ez dugula.* (Abanzabalegi andrea).

*Asmoa tabernako zerbitzuaren lizitazioa hastea da, beti egin den bezala. Kontratazioitik adierazi digute kontratua aldatu behar dugula, eta adierazi diguten bezala aldatu dugu. Ez dago ezer berririk. Kontua da kontratua martxan jartzea.* (Txertudi jauna).

Gaiari buruz eztabaidatzen dute. Txertudi jaunak ez du ulertzen zer aldaketa egon zitezkeen aztertzeko. Abanzabalegi andreak adierazi duenez, besteak beste, puntuazioak. Elkoroiribe andreak uste du beti ematen dela proposamenak aurkezteko aukera eta denok ezagutzen ditugula pleguak. Abanzabalegi andreak erantzun dio, zerbitzuari buruz askotan galdetu arren, inoiz ez dutela jakin zerbitzuaren benetako egoera zein den. Beti erantzuten zitzaien latzean ari zirela, baina inoiz ez dute horri buruzko berririk jaso, eta bat-batean, onespena iritsi da.

**01. Aprobación del Inicio de expediente de contratación correspondiente al Bar sito en el frontón «San Fausto».**

El Señor Txertudi, pregunta si tienen alguna cuestión que tratar antes de pasar a la votación.

*Hace tiempo que estamos solicitando información sobre este servicio. Teniendo el derecho a presentar propuestas, no se ha nos ha dado opción a ello. Hace quince día hubo Junta y tampoco se comentó nada al respecto. Traéis la propuesta y la presentáis. No se puede decir que no presentamos propuestas, es que tampoco tenemos opción a presentarlas.* (Señora Abanzabalegi).

*La intención es comenzar la licitación del servicio de bar, como siempre se ha hecho. Desde Contratación se nos ha indicado que debemos cambiar el contrato, y lo hemos hecho según nos han ido indicando. No hay nada nuevo. Se trata de poner el contrato en marcha.* (Señor Txertudi).

Discuten sobre el tema. El Señor Txertudi no entiende qué posibles cambios había que haber tratado. La Señora Abanzabalegi indica que, entre otras, las puntuaciones. La Señora Elkoroiribe considera que siempre se da opción a presentar propuestas y que todos conocemos los pliegos. La Señora Abanzabalegi le responde que, a pesar de preguntar numerosas veces sobre el servicio, nunca han sabido la situación real del mismo. Siempre se les respondía que se estaban trabajando, pero nunca han recibido noticia alguna al respecto, y de repente, llega la

aprobación.

Bikandi jaunak, Txertudi jaunak eskatuta, azaldu du zergatik zegoen aurreko urteetako plegu bera aurkezteko asmoa eta zeintzuk izan diren Kontratazio arloak emandako irizpideak.

El Señor Bikandi, a petición del Señor Txertudi, explica por qué se tenía la intención de presentar el mismo pliego de años anteriores y cuáles han sido los criterios aportados por el área de Contratación.

*Prozedura, hasiera batean eta beti bezala, irekia zen, gero demaniala izatea eskatu zen, eta azkenik, murriztua izatea. Errekerimendu bakoitzaren ondoren, pleguak aldatzen joan behar izan dugu. Ezarritako legeak eta Kontratazioak ezarritako irizpideak bete dira. Prozedura arrazoi teknikoengatik luzatu da .*

*El procedimiento en un principio y como siempre, era abierto, luego se requirió que fuera demanial y finalmente restringido. Hemos tenido que ir modificando los pliegos tras cada requerimiento. Se han seguido las leyes establecidas y los criterios marcados desde Contratación. El procedimiento se ha alargado por cuestiones técnicas.*

Bikandi jaunak emandako azalpenaren ondoren, Txertudi jaunak ez du ulertzen arazoa non dagoen, lizitazioak aurrera jarraitzen baitu ezarri zaizkien baldintzen arabera. Hori izan da lana, lizitazioa aurrera ateratzea

Tras la explicación dada por el Señor Bikandi, el Señor Txertudi no entiende dónde está el problema, pues la licitación sigue adelante según las condiciones que se les han marcado. Ese ha sido el trabajo, sacar adelante la licitación.

Abanzabalegi andreak berrio dio beti esan zaiela prest daudela proposamenak jasotzeko, baina ez zaiela aukerarik eman proposamenak aurkezteko. Ruiz andrearen ustez, pleguak berdinak izanik ez zela beharrezkoa.

La Señora Abanzabalegi insiste en que siempre se les ha indicado que están dispuestos a recibir propuestas, pero no se les ha dado opción a presentarlas. La Señora Ruiz entiende que al ser los pliegos iguales, no era necesario.

Elkoroiribe andreak aitortu du egunero erabaki asko hartu behar dituztela eta ezin dutela beste proposamenen zain egon aurrera jarraitzeko. Beste batzuetan, aztertu eta landu beharreko gaietarako, proposamenak aurkezteko gonbita egiten da.

La Señora Elkoroiribe reconoce que diariamente tienen que tomar muchas decisiones y no pueden estar esperando otras propuestas para seguir adelante. En otras ocasiones, para temas que deben estudiarse y trabajarse, sí que se invita a presentar propuestas.

Urkiza jaunak galdetu du ea zer aldatu zen espedientearen hasieran. Bikandi Jaunak adierazi dio transkripzio-akats txiki bat Varela Jaunak aurkituta.

El Señor Urkiza pregunta qué se cambió en el inicio de expediente. El Señor Bikandi le indica que un pequeño error de transcripción, detectado por el Señor Varela.

Varela jaunak, dokumentazio guztia irakurri ondoren, egindako lan handia onartzen du, baina uste du tarte teorikoak justu samarrak direla. Errealitateak, orain arte, erakusten digu ez dela betetzen pleguetan aurreikusten dena. Aurreko esleipendunekin hitz egin du, eta aitortu diete zein zaila den negozioa aurrera ateratzea. Lizitazio-oinarria jaitsita ere, arazo berberak errepikatuko direla uste du.

El Señor Varela, tras leer toda la documentación, reconoce el gran trabajo realizado, pero piensa que los márgenes teóricos van un poco justos. La realidad, hasta ahora, nos demuestra que no se cumple con lo que en los pliegos se prevé que pueda haber. Anteriores adjudicatarios con los que ha hablado, le han reconocido lo difícil que les resulta sacar adelante el negocio. Aun bajando la base de licitación, cree que se repetirán los mismos problemas.

*Kalkuluak baldintza optimoetan oinarrituta egiten dira. Funtzionatzen ez badu, Kontseilu Errektoreak aztertu eta erabakiak hartu beharko ditu. Kontratuen arduradunek gainean egon behar dute, zenbakiak betetzen ez badira Kontseilu Errektoreak beste estrategia batzuk aktibatu ahal izatea kontrolatzeko. Eta hori bera ezarri beharko da Tabirako tabernarako.* (Bikandi jauna).

*Los cálculos se realizan basados en condiciones óptimas. Si no funciona, el Consejo Rector deberá analizarlo y tomar decisiones. Las personas responsables de los contratos deben estar encima para controlar que si los números no se cumplen, se puedan activar otras estrategias por parte del Consejo Rector. Y esto mismo habrá que establecer para el bar de Tabira.* (Señor Bikandi).

Bertaratutakoek adierazi dute lizitaziora aurkezteko interesa duten pertsonak badaudela.

Los asistentes comentan que ya hay personas interesadas en presentarse a la licitación.

San Fausto pilotalekuko tabernari dagokion kontratazio-espedientearen hasiera onartu behar den ala ez bozkatu da.

Se lleva a votación si procede o no aprobar el Inicio de expediente de contratación correspondiente al Bar del frontón San Fausto.

Indarrean dauden estatutuek eskatzen duten quoruma dagoenez, bozketa egin da, eta emaitza hau izan da:

- Alde: EAJ-PNV (3).
  DES-SVD (1).

- Abstentzioak: EH Bildu Durango (2).
  HE-ID (1).

Proposamena onartu egin da.

Batzordea jakinaren gainean dago.

Presidenteak amaiera eman dio batzarrari, eta nik, batzordeko behin-behineko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

Existiendo el quórum exigible por los estatutos vigentes, se procede a votación, con el siguiente resultado:

- A favor: EAJ-PNV (3).
  DES-SVD (1).

- Abstenciones: EH Bildu-Durango (2).
  HE-ID (1).

La propuesta queda aceptada.

La Junta se da por enterada.

El Presidente da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta. De todo lo cual yo, como Secretaria accidental, doy fe.

| | | |
|---|---|---|
| TXERTUDI GAZTELU, Iker | ELKOROIRIBE ZENIKAONANDIA, Mireia | SÁNCHEZ ARIETA-ARAUNABEÑA, Paule |
| URKIZA QUILEZ, Iker | ABANZABALEGI AREITIO, Ane | RUIZ PÉREZ, Jesica |
| VARELA DORDIO, Jorge | | |